

Bitor Garitaonandia

**AITONA
ETA BILOBA**

Aitona eta biloba
Garitaonandiatar Bitor apaizak

IDATZITAKO
BI ATALDUN ANTZERKIA
(Edespen baten gogarriz.)

1921
ENEKO DEUNAREN IRARKOLA.-GARIBAI, 38
DONOSTIA

Gotzain-bahimenaz.

Jabeduna da.

*URRE*Atar MIKEL
euskaltzale adoretuari, maitasun-
agerkariz, eskaintzen dio
idazti hau

EGILEAK

BANAKETA

Antzeznotinak

ARANTZAZU
PANTXIKE (50 urteko Kristobalen mirabe-giltzazaina)
MARGARI
ISABEL (Margari eta Imanolen ama)
SABIN
KRISTOBAL (Sabinen aita)
IMANOL
SABINTXO ((Sabin eta Arantzazuren semetxoa: hamar urtetik berakoa)
TXOMIN
DIRU-ETXEKO OTSEINA

Antzertilariak

Susaeta anderea
Arzelus "
Irigoién "
Areitioaurtena "
Beorlegi jauna
Etxeberria "
Muxika "
Zabalbeazkoa "
Urkitza "
Agote "

LEHENENGO ATALA

AGERTOKIAN. -idazkola bat. Izango ditu gutxienez hiru ate; kalerako, olarako eta etxe-barrenerako. Leiho bat edo bi. Urrutizkina, orma edo mahai gainean.

LEHENENGO AGERRALDIA

Pantxike (bakarrik).

PANTXIKE. (Hautsak kenduaz idazkola apaintzen ari da.)
Gaur, bizkor-bizkor ibili beharra dut, ordu bitako bultzian Tolosara joateko, nire ilobatxoaren bataiora..... ¡soineko, berria garaiz ekartzen badidate!; ba, ez dut etxean itxurazkorik, eta, jakina da, nire herrira txukun xamar agertzea gustatzen zait..... ¡Zertan ote dago Arantzazu!..... Atzo agindu zidan gauerako etxean izango nuela: baina gaua igarota ere ez da ageri nire soinekoa... Harritzekoa da, hain txintxoia izanda agindu zidan bezala ez egitea!..... (Ate-deia entzuten da.) ¡Nire soinekoa ote da!..... (Joaten da atea irekitzera.)

BIGARREN AGERRALDIA

Pantxike eta Arantzazu: gero Sabin.

PANTXIKE. (Atean.) Aurrera, aurrera.
ARANTZAZU. Hara hemen soinekoa.
PANTXIKE. ¿Zerrek dakarzu?
ARANTZAZU. Ez nuen zeinekin bidali, eta neronek ekarri behar.
PANTXIKE. ¡Oraintxe nintzan esaten, zer gertatu ote zaizun!
ARANTZAZU. Badakizu Pantxike, ez zaidala gustatzen bakarrik etortzerik, behar-beharrezkoa izan ezik; eta orain ere hori gertatu zait. Banekien zu estu aurkituko zinala, eta artetsu jartzearren etorri naiz.
PANTXIKE. Eskertzen dizut.
ARANTZAZU. Mantala ere bidaliko dizut arratsalderako.
PANTXIKE. Ongi da. Ordu bitarako ¿e?
ARANTZAZU. Bai, bai; eta banoa, Kristobal jaunak ikusi baino lehen.
PANTXIKE. Ez da etxean.
ARANTZAZU. Dena dela, banoa. (*Abiatzen da.*)
SABIN. (*Barrean: olarako ate aldetik.*) ¡Pantxike!
PANTXIKE. (Arantzazuri.) Sabin dator: Itxoin puska bat. (*Olarako aterantz joanaz.*) ¿Zer da, Sabin?
SABIN. (Agertuaz.) Bostetan dela bataioa. (Arantzazu ikusiaz.) ¡Arantzazu hemen!
ARANTZAZU. Bai; zuk uste gabe, noski.
SABIN. Hala da. ¿Zer diozu?
ARANTZAZU. Ondo. ¿eta zu?
SABIN. Txit ondo.
ARANTZAZU. Ba, Pantxikek Tolosara joateko behar zuen janzkia ekartzera etorri naiz.
SABIN. Pantxikek ez du nahi zuk jositako soinekoak baizik.
PANTXIKE. Niretzat ez da jostun azkarragorik.
ARANTZAZU. Eskerrik asko.
PANTXIKE. Nahiago nuke nik orain ere lehenago bezala jostera etxera etorriko balitz.
SABIN. Bai baina..... badakizu ba.....
PANTXIKE. Eta, ¿zer dela eta egon behar du zure aitak horrela Arantzazuren aurka?
SABIN. ¿Ez al dakizu?
PANTXIKE. Ez dakit ba nik.....

ARANTZAZU. Ez da azterketa handi beharrik hori jakiteko! Sabinen aita..... aberats eta handiki zalea da..... eta nik ez dut horrelakorik.

SABIN. Niretzat ez da inor aurkitzen zu bezain aberatsik.

ARANTZAZU. Eskertzen dizut, Sabin.

PANTXIKE. Bai: entzun diot nik ere Kristobal jaunari «Arantzazu ez dela Sabini egokitzen zaion mailakoa».

ARANTZAZU. ¡Ai, Pantxike! Gaur egunean, laster aldatzen dira mailak: gaur gorengo mailan aurkitzen direnak, aurkitu litezke bihar beherengoan.

PANTXIKE. Bai, Arantzazu: arrazoi handia duzu. Aberastasunean harrokeriaz ezagutu ditugunak, ikusi ditugu txirotasun eta landerrierian erortzen.

SABIN. Hori egunero ikusten dugu gizartean. Eta, gainera. ¿Zer dela ta joan behar du nire aitak handiki-ondoren? ¿Zer zen bera ere orain urte gutxi dela? Langile bat.

ARANTZAZU. Langintzatik nagusitzara zintzotasunez iristea, omengarri da.

SABIN. Horregatik bada, berak ere ez lioke begiratu behar zure izaera eta landertasunari, baizik, zure zaletasun eta zintzotasunari.

PANTXIKE. Hori da; ekandu garbi eta ontasunari.

SABIN. Zure ontasuna, zure barrengo zintzotasuna aberatsagoa da urre eta zilarraren jabetasuna baino.

ARANTZAZU. (Apalki.) Ez dakit nola agertu nire bihotzezko eskerpena zure hitz eztsu eta maitekorrak entzun ondoren.

SABIN. Ba..... bihotzez maitatuaz.

ARANTZAZU. Nire maitasun guztia zukan dago.

SABIN. Ez dut bada besterik behar.

PANTXIKE. (Bihotzez.) Bai, gaixoak, bai: zuek biok Jaungoikoak bata bestearentzat eginak zarete.

SABIN. ¿Hala ote da, Pantxike?

PANTXIKE. ¡Izango ez da ba! Gainera. ¿dirua al da ba zoriona dakarkiguna? ¿Ez al da ontasuna dirua bezain onegarria?

SABIN. Bai. Pantxike: Leondar Koldobika abak diosku: «Andre on bat ez da andrea, aberaskitza bat baizik: eta emaztetzat hartzen duen gizonak ez du beste beharrik aberatsa izateko».

PANTXIKE. Ba, horrela izanik ¿ez al diote guztiak begiratu behar ontasunari diruari baino gehiago?

SABIN. ¡Arrazoia!

PANTXIKE. ¡Jakina da!..... Baina, zoritxarrez zer gertatzen da?: asko dutenak gehiago nahi: aberatsa denak aberatsago nahi.

ARANTZAZU. Eta ezin inoiz ere iritsi diru-nahitasunaren mugara.

PANTXIKE. ¡Hori da ba!: hamar baditu hoge nahi, ehun baditu berrehun nahi: eta. beti horrela, goratu nahian, bestearen gorapenari amorruz begira.

SABIN. Hori da hitz egitea, Pantxike.

PANTXIKE. Egi hutsa.

ARANTZAZU. Bai, hala da. (Jaikiaz.) Eta joan egin behar dut.

PANTXIKE. Ia, hainbat lasterren etortzen zeran nire etxeakoandre izateko.

ARANTZAZU. ¡Jaungoikoak nahi badu!.....

SABIN. Bai, bai; laster izango da.

PANTXIKE. ¿Limurtuko al dugu aita?

SABIN. Ahaleginduko gera.

PANTXIKE. Bai nire alde.

SABIN. (Gogoratuaz.) ¡A!..... Arantzazu.

ARANTZAZU. ¿Zer da, Sabin?

SABIN. ¿Badakizu ze jai dugun igandean?

ARANTZAZU. Ez naiz gogoratzen.

SABIN. Ba, mutikoen herri-abesti batzaldia.

ARANTZAZU. ¿Igandean al da?

SABIN. Bai: goizeko hamaiketan, antzoki nagusian. Eta, oso polita izango da. Ari naiz ni ere abeslari talde bat gertatzen.

ARANTZAZU. Ba, horiek irabaziko dute saria.

SABIN. Hori, igandean ikusiko da. Gainera, izango dugu euskaraz idatzi eta irakurtzea; eta baita danbolin jotzaileen azterketa ere.

PANTXIKE. ¿Ni joan al ninteke?
 SABIN. Bai, Pantxike: nik eramango dizut sarbidea, patxadan eserita egotekoa.
 PANTXIKE. ¿Bai? joan behar dugu ba.
 ARANTZAZU. Ari eta ari, gure hizketaldia luzatu egin da, eta banaoa.
 SABIN. Laster arte. Arantzazu.
 ARANTZAZU. Bai, Sabin; gero arte.
 PANTXIKE. Agur..... maitagarri.
 ARANTZAZU. Agur. Pantxike. (*Joaten da.*)

HIRUGARREN AGERRALDIA

Sabin eta Pantxike.

PANTXIKE. Hori da neskatxa, hori.
 SABIN. ¿Atsegin duzu?
 PANTXIKE. ¡Izango ez da ba! Etxe honetan ez da sartu horren antzekorik ere.
 SABIN. Atsegin zait hori entzutea.
 PANTXIKE. Ba. bihotz-bihotzez esaten dizut.
 SABIN. Sinisten dizut.
 PANTXIKE. Eta..... badakizu; handitasun gabea, diru gabea, eta lander eta umezurtza izan arren, ez duzula beste bat bilatuko zuri hobeto dagokizunik.
 SABIN. Ni ere horretan naiz. ¡Margari harroxko baino bestelakoa!
 PANTXIKE. ¡Ene bada! ¡Ez dadila gero sartu etxe honetan emakume harro eta handiputz hori!
 SABIN. Nik ere ez nuke nahi; baina. ¡zeinek limurtu nire aita!
 PANTXIKE. Ni ahaleginduko naiz.
 SABIN. Alperrik izango da. Nire aita. Margariren janzki apain, eta bere sendiak dituen *gaztelu* aldeko *pergamino* zaharrak txoraturik daukate.
 PANTXIKE. ¡Harritzekoa da!
 SABIN. Bai. (*Deia. Joaten da Pantxike atea irekitzera.*)
 PANTXIKE. Hemen daude mutil koxkorrak.
 SABIN. Sar daitezela.

LAUGARREN AGERRALDIA

Lehengoak eta lau edo sei mutiko (1).

MUTIKOAK. Egun on.
 SABIN. Tira mutilak, aurrera.
 PANTXIKE. Ondo ikasi behar, duzue gero: igandean saria irabazteko.
 MUTIKOAK. Badakigu.
 PANTXIKE. Besteak ere gogor ari omen dituk.
 MUTIKO BAT. Berdin izango da. Guk bezain ondo ez dute abestuko.
 SABIN. Orain ikusiko da nola egiten duzuen. ¿Ekarri al dituzue paperak?
 MUTIKOAK. Bai jauna.
 SABIN. Tira ba, lehenbizi *Txeru*, (Edo beste herri-abesti bat.) (Abesten dute Sabinekin arteztuaz.)
 PANTXIKE. Ederki: ¡bapo!
 SABIN. ¿Ondo al dago. Pantxike?
 PANTXIKE. Hobeto ezin.
 SABIN. Tira ba. Orain bestea. (Abesten dute San Juan de la Portaletaña edo beste bat.)
 PANTXIKE. ¡Hori duk abestea!

(1) Egokitzen den besteko talde bat.

BOSGARREN AGERRALDIA

Lehenkoak eta Kristobal.

- KRISTOBAL. (*Olarako atetik.*) ¿Zer darabilzue? ¡Beti bezala txorakerietan orduak igarotzen! (*Joaten da Pantxike.*)
- SABIN. Ez aita: nik ez dut uste txorakeria denik gure aberriaren alde zerbait egitea.
- KRISTOBAL. ¿Zertan ari zintaten bada?
- SABIN. Mutil koxkor hauei herri-abestitxo batzuek erakusten, datorren igandean ondo abestu dezaten.
- KRISTOBAL. ¿Ze jai duk ba igandean?
- SABIN. «Euskaltzale Lagundiak» eratu duen euskal jaia.
- KRISTOBAL. ¡Ba, ba!.... lehen esan dudana: txorakeriak.
- SABIN. (*Mutikoei.*) Mutilak: gaurko nahikoa duzue.
- KRISTOBAL. Baita biharko ere.
- SABIN. Zoazte orain. (*Joaten dira mutikoak agurtuaz.*)
- KRISTOBAL. ¡Hori duk!....Txorakerietan igaro hainbeste ordu, eta idazkolako lanak atzeratuta.
- SABIN. ¿Nire lanak atzeratuta? Ez dut uste.
- KRISTOBAL. Bai: eta badakik, lehenbizi etxeko gora beherak eratu behar dituala.
- SABIN. Horretan naiz: eta zerbait bada, berehala egingo dut.
- KRISTOBAL. Ba, joan eta ikusi zer egin behar den.
- SABIN. Berehala egingo dut.
- KRISTOBAL. Hori duk hire egin beharra. (*abiatzen da Sabin.*) Itxoin puska batean. Beste gauzatxo bat esan beharra diat.
- SABIN. (*Apal.*) Nahi duzuna. aita.
- KRISTOBAL. Entzun diat hemen izan dela Arantzazu umezurtz hori.
- SABIN. Bai, aita, hemen izan da.
- KRISTOBAL. Ba.... zentzua duen gizonak, ez lioke eman behar hasierarik egipenari, aurrez ongi oldoztu gabe.
- SABIN. Egia da.
- KRISTOBAL. Eta, hik ¿oldoztu al duk ongi, neskatxa horrengana joan baino lehen?
- SABIN. Bai, eta benaz.
- KRISTOBAL. Eta. ¿Zer uste duk?
- SABIN. Ba.... egia esateko, gaur nintzen zuri eskari bat bihotz-bihotzez egiteko ustean.
- KRISTOBAL. ¿Zer eskari?
- SABIN. Ezkontzeko baimena.
- KRISTOBAL. Hiri dagokidan bezalako neskatila batekin nahi baduk, ez duk izango eragozpenik.
- SABIN. ¿Ez al da ba Arantzazu itxurazkoa eta egokia?
- KRISTOBAL. ¡Egokia!.... Bera bezalako txatxar eta lander baterentzat!
- SABIN. (*Suminduta.*) Arantzazuren egikera eta izaeragatik ez du inork zer esanik izango.
- KRISTOBAL. Baina, ¿ze uste duk hik? Nire seme bakarra edozeinekin ezkonduko dela?
- SABIN. Arantzazu ez da *edozein*; baina bai beste edozein bezain egokia. ¡Behartsu aurkitzen dela! ¡diru gabea dela!.... Ez du beste zer esanik; eta nik uste dut, ez diogula begiratu behar aberastasunari, zintzotasunari baizik.
- KRISTOBAL. Baduk beste neskatila bat. Arantzazu bezain zintzoa, eta hiretzat omengarriagoa izango dena; eta begiratu ondo, oldoztu ondo eta lehenbailehen ze bide hartu behar duen, aitari nahigabe minkor bat ematea nahi ez baduk.
- SABIN. Nire ustez, nire gogoz, ez nuke nahi nire aita nahigabetzerik; eta horregatik, Arantzazuri hitz emanda daukatelako, bihotz-bihotzez eskatzen dizut baimena; eta mesede horregatik zu maitatzen eta bedeinkatzen igaroko dut nire bizitza guzia.
- KRISTOBAL. (*Biziro eta dardaraz.*) Baina.... ¿txoratuta aurkitzen al haiz, umezurtz eta txakur txiki baten jabe ez den neskatxa batekin ezkontzeko baimena niri eskatzeko?
- SABIN. Ez aita: zentzudun eta benaz otoitzen dizut.
- KRISTOBAL. Ez duk bada lortuko.... Muker eta setatsu hori!.... ¡Ken adi nire aurretik!
- SABIN. ¡Aita!....
- KRISTOBAL. ¡Lanera!.... (*Abiatzen da Sabin.*) Datorrela Pantxike hona. (*Joaten da Sabin apalki olarako atetik.*) ¡Zentzugabeko ume txatxuok!.... ¡Utzi beharko diok neskatxa horri!
- PANTXIKE. ¿Zer nahi duzu, nagusia?

KRISTOBAL. Zatoz hona. ¿Hemen izan omen da Etxezuriko ume zurtz hori?
PANTXIKE. Bai jauna: eta..... neskabila egokia.
KRISTOBAL. (Haserre.) Ez dizut galdetzen egokia hala baldarra denik. ¿Zertara etorri da?
PANTXIKE. Ba..... janzki batzuek ekartzera. Ez omen zuen zeinekin bidali eta.....
KRISTOBAL. ¿Ze janzki dira horiek?
PANTXIKE. Niretzat egiteko agindu nion soinekoa.
KRISTOBAL. ¿Ez al duzu beste jostunik herrian?
PANTXIKE. Ba..... Bera izan da, bost urte honetan nire jostuna eta..... egia esateko, ez dago niretzat bera bezain azkarrik.
KRISTOBAL. ¡Zaude isilik! ¡Ezer ez duen umezurtz kaxkar hori!
PANTXIKE. Bai; umezurtza da gaixoa..... baina.....
KRISTOBAL. Ba, zure kontu: Zuk zaindu behar dituzu. Begiratu ondo beren maitasunak ze bide daraman.
PANTXIKE. Ez da begiratu beharrik.
KRISTOBAL. ¡E!..... ¿Ze uste duzu? ¿Nire semea eta neskatxa ximel hori maila batekoak direla?
PANTXIKE. ¡Ez dakit ba nik!: maila konturik ez dut aditzen da.
KRISTOBAL. ¡Ze aditu behar duzu zuk!..... Margari da Sabini egokitzen zaion andre-gaia.
PANTXIKE. Ba. Sabinekin ez du nahi besterik, Arantzazu baizik.
KRISTOBAL. ¡Beharko!
PANTXIKE. Baina..... hori da ba....
KRISTOBAL. ¿Zer?
PANTXIKE. ¡Ezer ez!..... ez dela gauza-onik egingo, txarrean hasiz gero: eta horrela guztiok izango gara gaizki.
KRISTOBAL. Gaizki nahi ondo.
PANTXIKE. Baina..... ¿nola nahi duzu ba, berak nahi ez duenarekin ezkontzea? Maitasun gabeko ezkontzak, ez du sustrairik, ez sendagarririk: eta badakizu, oinarri gabeko etxeak laster joko du lurra.
KRISTOBAL. ¡Berrikerak dira horiek!..... Zuk egin ezazu agindu dizudana. Zaindu ondo beren ibilera guztiak; eta gero, eman niri kontu garbiak.
PANTXIKE. Ondo da.....
KRISTOBAL. Eta..... ¡jixo!..... ez esan ze agindu eman dizudanik.
PANTXIKE. Ez jauna.
KRISTOBAL. ¡Ez gero txintik ere ateral!
PANTXIKE. Ez, ez.
KRISTOBAL. Gero arte bada.
PANTXIKE. Agur jauna.

SEIGARREN AGERRALDIA

Pantxike eta Sabin: gero Txomin.

PANTXIKE. (Bakarrik.) ¡Hauek istiluak!..... Sabin eta Arantzazutxoren ibilerak zaindu behar nik!..... Zainduko ditut bai; eta gogoz zaindu ere, eragozpenik izan ez dezaten beren asmoak betetzeko..... ¡Hamaika eragabekeri ikusten da ludi honetan!.....
SABIN. (Olarako atetik.) ¿Zer dugu, Pantxike? Hitzun aurkitzen zaitut.
PANTXIKE. Bai, Sabin, bai. Harrituta nago.
SABIN. ¿Zer duzu ba?
PANTXIKE. Zure aitak ez du nahi Arantzazuren lorratzik ere.
SABIN. ¡Eta zer egingo diogu ba!
PANTXIKE. Gainera, ez dakizu beste gauza bat.
SABIN. ¿Zer?
PANTXIKE. Ez nuke esan behar..... baina, ¡hain asko nahi dizut!..... ¡isilik gero!
SABIN. Isilpekoa bada, lurpean egongo da.
PANTXIKE. Gaurtik, nire zaitasunpean izango zarete.
SABIN. Ez gara gaizki izango.
PANTXIKE. Ez, ¿e?

SABIN. ¡Nola bada! Bi urte nituenez geroz zu izan zara nire ama-ordeko, eta ontsua benetan.

PANTXIKE. Bai baina, orain zaindari izango naiz: zu eta Arantzazu zaindu, zuen ibilera guztiak azterkatu, eta gero, nire azterkuntzaren kontu garbiak eman zure aitari.

SABIN. ¿Agindu hori eman al dizu aitak?

PANTXIKE. Bai. ¡Ez esan gero berari!

SABIN. Ez, Pantxike: eta eskerrik asko zure nireganako uste onagatik.

PANTXIKE. Ni beti izango naiz zure alde.

SABIN. Ba, zuk ere badakizu, ama bezain maite zaitudala.

PANTXIKE. Kontuz ibili bada. Sabin.

SABIN. Bai, bai: ez izan ardurarik. Arantzazu eta ni ez gara ibiliko behar ez den bideetatik, eta ez duzu gure erruz zer esanik izango.

PANTXIKE. Hala uste dut; biok zarete onak eta.....

SABIN. Arantzazu niretzat eta ni Arantzazurentzat.

PANTXIKE. ¡Izango ote da ba!

SABIN. Bai, bai; horretaz ez dut ezbairik. (*Etortzen da Txomin olarako atetik.*)

TXOMIN. Txurruka jauna etorri da olara, eta aita etxean ez bada zu joateko lehenbailehen, esan dit.

SABIN. Bai: berehala noala, (*Joaten da Txomin.*) Badakizu ba, Pantxike. Niretzat Arantzazu, besterik ez.

PANTXIKE. Ondo egingo duzu.

SABIN. Ez dugu behar etxe honetan Margari bezalako handiputzik.

PANTXIKE. Ez, ez; ¡Jainkoak aparta!

SABIN. Gero arte. (*Joaten da*)

PANTXIKE. Bai.

ZAZPIGARREN AGERRALDIA

Pantxike (bakarrik).

PANTXIKE. ¡Hauxe da ba!..... Ez nion ezer esan behar: baina, alperrik..... ¡Emakumeak beti emakume!..... ezin lotu mingaina. ¡Bai! ¡ez gara jaio apaiz izateko! ¡bekatari gaixoak! ¿Emakumeak eduki isilik aitorpenean aitatu ere? ez..... Horregatik ez dugu emakumeak Elizako gora-beheretan eskubiderik. ¡Ondo zekian, bai, esan zuenak: «Emakumeak elizan isilik!» ¿Bestela? ¡a ze hizketaldiak entzun beharko zintuzketen gizonak! (*Deia.*) Banoa. (*joaten da atera.*)

ZORTZIGARREN AGERRALDIA

Pantxike, Isabel eta Margari (1).

ISAB.-MARG. (*Sartuaz.*) Egun on. (*Harroxko eta handikeriaz hitz egingo dute.*)

PANTXIKE. Hala ekarri.

ISABEL. Tira. hartu *kaba* eta *abriguak*.

MARGARI. Tori. (*Isabelek kaba eta abrigua, eta Margarik abrigua ematen dizkiote, eta Pantxike haiek hartuta ahoa zabalik gelditzen da.*)

PANTXIKE. ¿Niretzat al dira?

ISABEL. Emakumea, jaso itzazu behar den lekura.

MARGARI. Zuk ez dakizu nola errezibitzen diren señorita handikiak.

ISABEL. ¡Hauek neska atrasatuak! (*Pantxikek aulki baten gainean uzten ditu emandako gauzak.*)

PANTXIKE. Izututa gelditu naiz zuek ikusteaz. Printzesa bat zetorrela iruditu zait.

MARGARI. (*Oso pozturik.*) ¿Bai, e?

ISABEL. ¿Hala dirudi, e?..... Nire alaba da.

PANTXIKE. Bai; ezin ukatu: mingainean duzue ezagun.

ISABEL. ¿Mingainean! ¿Ikusi al didazu?

PANTXIKE. Mintzaeran esan nahi nuen.
MARGARI. ¡A..... bai! Hizketako moduak asko erakusten du norberaren bikaintasun eta gailentasuna.

ISABEL. Orain *zepilo* bat ekarri, eta poliki-poliki hautsak kenduaz garbi-garbi eta apain-apain jarri behar dizkiozu janzki eder horiek.

PANTXIKE. Garbi eta apain daude orain ere janzki horiek.
MARGARI. Ez; ni horretan pinpilinpauxa baino *delikatuagoa* naiz: garbi eta txukun presentatzea gustatzen zait; eta nire Sabintxo etorri baino lehen apaindu behar dut.

PANTXIKE. (Atzeko aldera joanaz.) (Beregain.) ¡Nire Sabintxo! ¡Harrapatuko den!
MARGARI. Zaude: lehenbizi basotxo bat ur ekarri behar didazu, esponjarekin, ahoa lehortu zait eta. (Margari eskularruak kentzen hasten da.)

ISABEL. Ura bakarrik ez; gaitz egiteko ere. Hara: jerezarekin nahastuta hartuko du. Horrela ohituta dago.

PANTXIKE. Ba, gure etxean dagon jerezik et du hartuko.
ISABEL. ¿Ez al duzue? ¡A!..... Horrelako gauzak beti aurkitu behar dira etxean.
PANTXIKE. Guk sagardoa edo txakolina.
MARGARI. ¡Ene!..... Edari ordinarioak dira horiek.
ISABEL. Ez gaude ohituta.
MARGARI. (Esku-larruak kendu eta eskuei begira.) Ekariezadazu behintzat eskuak garbitzeko ura.

PANTXIKE. ¿Esponjarekin behar al du hori ere?
ISABEL. (Haserre.) Barkiluarekin behar du.
MARGARI. (Oso haserre, esku-larruak berriro jarriaz.) Ez dut ezer ere behar.
ISABEL. Entzun duzu: ez eta ezer ere. (Beregain.) ¡Neska baldana! ¡Que ignoranzia! (Margariri.) Nire printzesa: eseri zaitez. (Biak eserita: isil aldia.) ¿Etxean izango dira señorituak? (Pantxikeri.)

PANTXIKE. Ez bata eta ez bestea.
ISABEL. ¿Ez direla etxean?
MARGARI. ¡Otro tanto!
ISABEL. ¿Non dira ba?
PANTXIKE. Ez dakit. Nagusia kalera atera da, eta Sabin..... ez dakit non izango den.
MARGARI. Gure bila joango ziran.
ISABEL. Baliteke.
MARGARI. Bai, bai: jakina da. Orain da trena etortzeko ordua, eta estaziora joango ziran, eta gu automobilean etorri.

ISABEL. ¡Arrazoia duzu!
MARGARI. ¡Klaro!
PANTXIKE. (¡*Hauek emakumeak!*)
ISABEL. *Petardua* eraman behar dute.
PANTXIKE. (*Bai zuek.*)
MARGARI. Baina gero, etortzen direnean *sorpres*a ere handiagoa izango da.
ISABEL. Poztuko dira gu automobilean etortzearekin.
MARGARI. ¡Ya lo kreo! (Pantxikeri.) Eta zuk, zabiltzan baino zuzenago ibili beharko duzu.
PANTXIKE. ¿Zuzenago? Okerka al nabil ba?
MARGARI. Bai; ikusiko duzu, zure señorita izateko etortzen naizenean.
PANTXIKE. (¡Jainkoak aparta!.....) Eta..... ¿Laster izango al da?
MARGARI. Bai: Kristobal jaunak esan ziran udaberrirako gertuko gabela. Garai horretan ezkontzen dira aristokraziakoak.

PANTXIKE. ¡Aristokraziakoak!..... (*Gogoraziaz.*) Ez ditut ezagutzen. (*Margari eta Isabel parrez.*)
¿Zuen herritarren batzuk al dira?
ISABEL. Honek ez daki zer diren aristokraziakoak.
PANTXIKE. ¿Zer diren?..... Ezkondu behar badute, neska-mutil ezkongaiak.
MARGARI. ¡Ez, ez, ez!..... Aristokraziakoak deitzen zaie, gu bezalako handikiei; jente grandezakoei: orain, baita deitzen zaie jente bien.
PANTXIKE. ¡Bien!.....

(1) Isabel eta Margariren irrigarritzat jartzen dira erdarazko hitz batzuek.

BEDERATZIGARREN AGERRALDIA

Lehengoak eta Arantzazu.

- ARANTZAZU. (Sartuaz.) ¿Bada baimenik? (Gelditzen da.)
PANTXIKE. (Orain kontuak!) Aurrera, Arantzazu.
ARANTZAZU. (Isabel eta Margariri) Egun on duzuela. (Isabel eta Margari, erantzun gabe, zerbait apaintzen edo.)
PANTXIKE. (Arantzazuri maitekor hitz-eginaz.) Baita zuk ere. Zu, agindu duzun bezala, txintxo-txintxo. Eseri zaitetz, eseri Arantzazu. (Arantzazu lotsaz.)
MARGARI. (*Hantustez.*) ¡E!..... ¡Gu hemen gaudela esaten diozu esertzeko!..... ¿Hori al da edukazioa?
PANTXIKE. ¿Non eseri behar du ba?
MARGARI. Sukaldean, sukaldean..... neskatzak sukaldean.
ARANTZAZU. Eragozten badizuet.....
PANTXIKE. Ez, Arantzazu, ez. (Margariri.) Hau, beronen zeregin bat betetzera etorri da.
ISABEL. Neskameen zereginak..... sukaldean.
ARANTZAZU. ¿Gaizki egin al dizuet?
MARGARI. Gaizki egiten duzu, gu gauden bitartean hemen gelditzeaz.
ARANTZAZU. Barkatu bada.
MARGARI. ¡Ze barkatu!..... Ikasi Señoritak tratatzen.
PANTXIKE. Jakin behar duzue, hau ez dela neskamea: hau, *señorita* da.
ISABEL. ¡A!.....
MARGARI. ¡Ola!.....*señorita* e?..... badirudi bai, ¡panpoxa dago!..... (*Burlez.*)
ARANTZAZU. (*Erdi negarrez.*) ¡Baina, zer da hau!..... ¡Gauza horiek entzun behar!
PANTXIKE. Ez izutu, maite.
ARANTZAZU. ¡Etxe honetan iseka egin niri!..... ¡Non da nire Sabin!
MARGARI. ¡O!..... (*Altxatuaz eta iseka eginaz.*) ¡Nire Sabin! ¡Bere senar-gaia balitz bezala!
PANTXIKE. Eta ¿zergatik ez? Hori, Sabinekin jakingo du.
ISABEL. ¿Zer diozu? (*Jaikiaz.*)
MARGARI. ¡Ja, jai!..... ¿Biokin ezkondu behar al du?
ARANTZAZU. (Gogoz eta benaz.) ¡Sabin nirea da!

HAMARGARREN AGERRALDIA

Lehengoak eta Sabin: gero Kristobal.

- SABIN. (Olarako atetik.) ¡Zer da hau!.....
ISABEL. ¡Ola, Sabin!
MARGARI. ¡Zatoz, Sabin!
SABIN. (Arantzazuri begiratuaz.) ¡Zer gertatzen da hemen! ¡Arantzazu negarrez!
PANTXIKE. Garai egokian etorri zera.
MARGARI. ¿Ez diguzu ezer esaten?
SABIN. (*Aurpegi ilunaz*) ¿Zer du Arantzazuk? (*Margari eta Isabel harritzen ari dira.*)
ARANTZAZU. Horrentzat hala niretzat zeran jakin beharrian aurkitzen naiz.
PANTXIKE. Banoa ekaitzak hartu baino lehen. (*joaten da.*)
SABIN. ¡Arantzazu! Ez horretaz ez bairik izan. ¿Zer esan dizute?
ARANTZAZU. Ateratzeko hemendik.
MARGARI. Ez. Edukazioerik ez duela esan diot: eta berriro ere esango diot.
ISABEL. Bai *por zierto*.
SABIN. Arantzazuk ez du zuek ezer erakutsi beharrik.
MARGARI. ¿Sabin?.....
SABIN. ¡Zuek nire emazte-gaia, nire etxetik atera nahi!
ISABEL. ¡Zer da hau!
MARGARI. ¡Ene bada!..... ¿Burutik egin al zaio?
SABIN. ¿Niri burutik egin?..... ¡Zoaz hemendik urrut! ¡Ez zaitut ezertarako behar!

ISABEL. ¿Hori esan nire alabari? ¡Bere ondoren ibili eta gero!
SABIN. ¿Ni horren ondoren?..... Zuek zabiltzate aspaldi honetan ardi-gosea artzain ondoren bezala.

MARGARI. (*Suminki eta negarrez.*) ¡Hori ere esan!
ISABEL. ¡Lotsagabea! ¡¡*Insolentia!*!
MARGARI. Jauregizarreko nagusiaren alabari!
SABIN. ¡Zoaz hemendik!
ISABEL. ¿Zer zara zu, *arlote* bat baizik, gure jatorri eta goitasunarekin berdintzeko?
SABIN. ¡Zoazte berehala, zuen jatorri eta goitasun guztiarekin!
ISABEL. (*Aterantz abiaturik, lehen utzitako kabas eta gainerakoak hartuta.*) ¡Bai, bagoaz!
Baina ¡damutuko zaizu!

MARGARI. (*Atetik.*) ¡lotsagabea!
ISABEL. (*Atetik.*) ¡txotxolo!..... ¡¡*Petrala!!..... (joaten dira.)*
SABIN. (*Atea itxi baino lehen.*) ¡Ez daitezela gehiago nire begi-aurrean jarri!
KRISTOBAL. (*Barrendik.*) ¡Zer da! ¡Zer da!
ARANTZAZU. (*Harrituta.*) ¡Ene bada! ¿Zer egingo dut nik orain?..... ¡Zure aita da!
SABIN. Ez ikaratu.
KRISTOBAL. (*Barrendik.*) Zatozte nirekin.
ISABEL. (*Barrendik.*) Ez gara gehiago sartuko etxe horretan.
MARGARI. (*Barrendik.*) ¡Jauregizarreko alaba etxetik atera!
ISABEL. ¡¡*Arlote* lotsagabea!!
ISABEL. (*Nora joan ez dakiela.*) ¡Ni banoa! ¡Ai ene!
KRISTOBAL. (*Agertuaz haserre.*) ¿Zer gertatu da hemen? ¿Zer egin duzue? (*Zematuaz.*)
SABIN. Aldi honetan ezin nezakeen beste gauzarik egin.
KRISTOBAL. ¡Margari atera hik nire etxetik! ¿Ba al duk hik hori egiteko eskubiderik?
(*Arantzazugatik.*) Hau duk etxe honetatik atera behar dena.

ARANTZAZU. ¡Jauna!.....
SABIN. ¡Aita! ¡Mesedez eta onbidez!
KRISTOBAL. (*Arantzazuri.*) ¡Kanpora! (*Arantzazu joaten da aterantz negarrez.*)
SABIN. ¡Ez, aita, ez! ¿Ni Arantzazu gabe? ¡Ez!
KRISTOBAL. Arantzazurekin nahi baduk, badakik ze bide hartu behar duen!
SABIN. Atsekabez eta larri-aldiz beterik jartzen duzu nire bihotza!
KRISTOBAL. Hautatu bada berehala: edo aita edo neskatxa hori.
SABIN. Badakizu, aita.....
KRISTOBAL. (*Erabakiz.*) ¡Bai: bazekiat. (*Atea erakutsiaz.*) Hara hor hiretzat ere atea zabalik.
SABIN. (*Burua makurtuaz.*) ¡Jaunak lagundu biezat! (*Abiatzen da.*)
PANTXIKE. (*Etxe barrendik atereaz.*) ¡Zer da hau!
KRISTOBAL. ¡Kanpora berehala!
PANTXIKE. (*Kristobali.*) ¡Barka iezaiozu Jauna!
SABIN. ¡Jaungoikoak barka biezaio! (*Joaten da.*)
PANTXIKE. ¡Sabin gaixoa!

Lehenengo atalaren azkena.

BIGARREN ATALA

(Agertokia lehen bezala.)

LEHENENGO AGERRALDIA

Kristobal: gero Pantxike.

- KRISTOBAL. (*Mahai-gainean egongo den errolda-idaztia ikustatzen.*) ¡Alperrik!..... Aurretik hasi, atzetik hasi, berdin-berdin..... ¡Zortzi mila laurlekoren huskaria!..... (*Isilik.*) Lau..... sei..... zazpi..... hamabi..... hamabost..... hau ondo dago. (Beste orrira, begira.) Bi..... lau..... hamar..... hamasei..... hau ere garbi dago. Baina, beti bezala, zorrak gehiago hartzekoak baino. ¿Nola izan liteke hau?..... (*Deitzen dio Pantxikeri.*)
- PANTXIKE. ¿Zer da?
- KRISTOBAL. ¿Etorri al da Imanol?
- PANTXIKE. Ez dut ikusi.
- KRISTOBAL. Lehenengo etorri behar lukeena, azkeneko.
- PANTXIKE. Atzekoak ez dira inoiz arduratuko etxekoak bezala. ¡Duzun bezalako semea eduki eta!.....
- KRISTOBAL. ¿Semea?..... ¡Ez banu bezala!
- PANTXIKE. Barkatu esan beharra; baina, hori ez da kristau-legea!
- KRISTOBAL. (*Kezkatuaz.*) ¿Zer nahi duzu egitea?
- PANTXIKE. Badakizu, jauna; gaur dela bilobatxoaren lehenbiziko Jaun hartzea. ¡Ze egun egokia!.....
- KRISTOBAL. ¡Utz iezadazu bakean, nire buru astun hau gehiago nahastatu gabe!..... Badut nahikoa zer egin!..... (*Beregan.*) Eta, Imanol ageri ez..... Neronek joan beharko. (*jaikitzen da.*)
- PANTXIKE. ¿Nik egitekoa bada?.....
- KRISTOBAL. Ez: berehala etorriko naiz. Imanol etortzen bada ikustatu ditzala ondo idazti horretako hartu-emanak. (*Joaten da olarako atetik.*)
- PANTXIKE. Ondo da.

BIGARREN AGERRALDIA

Pantxike: gero Margari eta Isabel.

- PANTXIKE. (*Bakarrik.*) ¡Hau ez da biziera! Etxe batekoak, sendi batekoak banatuta, bakoitza bere aldetik: eta kanpokoak nahi duten guztia egiten..... ¡Ai, Sabin eta Arantzazu! inoiz etorriko ote zarete aitaren ondora!..... (*Deia.*) ¡Ba! hemen izango dira behar ez direnak!..... (*Joaten da atea irekitzera.*) Aurrera.
- ISABEL. Ola neskatxa.
- MARGARI. Egun on.
- PANTXIKE. Baita zuei ere.
- MARGARI. ¿Hemen izango da Imanol?
- PANTXIKE. Ez da etorri.
- MARGARI. ¿Oraindik etorri gabe?
- ISABEL. Eta ¿Kristobal jauna?
- PANTXIKE. Ezta.
- MARGARI. Zori txarra dugu.
- PANTXIKE. ¿Behar-beharrekoa al duzue?
- ISABEL. Bai ba: arratsaldean ateratzen gara Sevillara joateko.

PANTXIKE. ¿Sevillaraino?
 ISABEL. Bai, enetxoa.
 MARGARI. Hori, urte guztietakoa da: maiatza arte Andaluzian, gero Madrilén; eta udara Biarritz eta Donostian.
 ISABEL. Kasinoan eta..... zezenetan eta.
 MARGARI. Sabin eta beste batzuek bezala, urte guzian hemen mendi-tartean sartuta. ¡Zorionean ez nintzan ezkondu berarekin!
 ISABEL. Bai *por zierto*.
 MARGARI. ¡*Me pareze!*
 PANTXIKE. Ba..... Sabin eta Arantzazu beren semetxoarekin ondo bizi dira.
 ISABEL. ¡Bai! *Lo que es* zuk haien alde egingo duzu.
 PANTXIKE. ¿Eta zergatik egin behar dut kontra, niretzat onak izanez gero?
 ISABEL. Kristobal jauna da zuk *defenditu* behar duzuna.
 PANTXIKE. Inork baino gehiago egiten dut bere alde, behar beharrean aurkitzen delako.
 ISABEL. Bai, ¡gaixoa!
 MARGARI. Eskerrak Imanoli, bestela gaizki behar zuen Kristobalek.
 ISABEL. *Ya lo kreo*. Nire seme Imanolek ez zuen Kristobalen administradore izan nahi.
 MARGARI. *Naturalmente*.
 ISABEL. Badakizu ba, gu bezalako entzute handiko familia bateko semeari ez zaio egokitzen inoren *enplegatua* izaterik.
 MARGARI. Por supuesto.
 ISABEL. Baina. errukitu egin ginen, eta gure esana egitearren etorri zen Kristobal jaunari laguntzera.
 PANTXIKE. ¡Bai, bai, sinisten dut!
 MARGARI. ¿Laster etorriko al da Kristobal?
 PANTXIKE. Ez dut uste.
 MARGARI. Ba, joan egin beharko dugu, *presa* dugu-eta.
 ISABEL. (*Pantxikeri emanaz.*) Hau emango diozu Kristobal jaunari gure partez. Habanatik tabakalerako presidenteak espresamente beretzat ekarritakoa da, nik aginduta.
 PANTXIKE. Ongi dago.
 ISABEL. Bagoaz bada.
 MARGARI. Gero egingo dugu *bueltatxo* bat ahal badugu.
 PANTXIKE. Esango diot.
 MARGARI. ¡Adios! (Joaten dira.)
 PANTXIKE. Agur.

HIRUGARREN AGERRALDIA

Pantxike: gero Kristobal eta Imanol.

PANTXIKE. (Bakarrik.) ¡Inoiz agertzen ez badira hobe! Baina. etorriko dira bai!: batez ere..... señorita txatxala hori! eta.....beti erregalotxoekin..... ¡bai, bai! ¡badakite zer egin beren alde!.....bat ekarri, hamar eramateko! Eta, ¡nik isilik egon behar!.... ¡Imanol nire nagusiaren diruzaina dela eta!.... ¡Ai, ai, ai! Diruzaintza horrek *orraztuta* utzi behar du laster Kristobal jauna!.... ¡Ixo!..... hemen dira..... (*Kristobal eta Imanol olarako atetik.*)
 PANTXIKE. (*Kristobali.*) Andre Isabel eta Margari izan dira. Hau utzi dute zuri emateko; eta etorriko direla gero ahal badute.
 KRISTOBAL. (*Gogaldi txarra du.*) Ondo da. (Joaten da Pantxike.)
 KRISTOBAL. (*Imanoli, errolda-idaztia irekiaz.*) Nik ezin dut ulertu nola izan liteken hau. Lan asko dugula burdinolan, asko irabazten dela: eta, hala ere diru uskaria. ¿Zer deritzozu?
 IMANOL. Ba: asko irabazten dela, baina gehiago hondatu.
 KRISTOBAL. Eta ¿nondik dator hondamendi hori?
 IMANOL. Nik ez dakit ba.....
 KRISTOBAL. Ba, diruzaina zeran ezkerro, zu zara beste inork baino hobeto jakin behar duzuna.
 IMANOL. (Musu ilunaz.) Beraz ¿zerbait susmatzen al duzu nitaz?
 KRISTOBAL. Susmatu..... ¡ez dakit ba nik!..... zu zarela bai burdinolako gora-behera guztien kontua garbi eraman behar duzuna.

IMANOL. Bai, egia da: nire arazoa da hori. Baina, ez didazu ukatuko nik ahalegin guztiak egiten ditudala ahal denik ondoen eramateko; eta hau egia den hala ez, aurrean duzun «banaketak» erakusten dizu.

KRISTOBAL. ¿Nor izan liteke bada errudun?

IMANOL. Ezkutuz dabilen gaiztagileren bat.

KRISTOBAL. Eta zuk ¿ez al duzu inoren susmorik?

IMANOL. ¡Susmoa.... Agerbiderik ez dut, baina... zerbait...

KRISTOBAL. ¿Nortaz?

IMANOL. Dakizun bezala, zure semea da hemengo gora-behera guztien berri ondoen dakiena: eta... nik, inoiz aditu dut, Sabineke esana dela, bera etxetik kanpora ateratzeak izango duela noizbait ordainpena.

KRISTOBAL. ¿Egia al da hori?

IMANOL. Nik hala aditu dut.

KRISTOBAL. ¿Nola izan liteke baina? Egunero entzuten dut nire semea bezalako gizonik ez dela: bere aitaganako maitasuna handia dela, herri guztiak maite duela; Eta nire ondora ekarri behar nukeela!; eta orain, zuk, ¿hori diozu?

IMANOL. Nik ere, entzun dudana. Badira, bai, asko, zure semea goratu nahi dutenak, baina ez guztiak.

KRISTOBAL. Gainera, dakizun bezala, nire semea ez da sartu etxe honetan ezkonduz gero, ¿jeta sartuko ere!, eta ¿nola izan liteke zuk diozuna?

IMANOL. Etxean sartu beharrik ez da. Izango du adiskideren bat ola-gizonen artean.

KRISTOBAL. (*Tamal.*) ¡Orduan zure ustez, nire semea izango da!

IMANOL. Esan dizut, ez dudala agerbiderik: baina, nire ustez, bere erruz izango dela: bada, Txantonek ere esan zidan, Sabineke min handia hartu zuela zuk etxetik ateratzeaz, eta ez dela geldituko etxe guztia hondatu arte.

KRISTOBAL. ¡Horrela ote da ba!

IMANOL. Hartu, badaezpada, oharpenak, eta zaindu.

KRISTOBAL. ¡Nire semeak ausarkeri hori! Ez naiz ba ni ere geldituko bazter guztiak aztertu gabe, eta nire hondamendiaren errudun zein den jakin gabe.

IMANOL. Ondo egingo duzu: nik ere ahaleginak egingo ditut.

KRISTOBAL. Banoa. (*Jaikitzen da.*) Eta zuk bitartean, azterkatu ahal denik ondoen kontu horiek.

IMANOL. Hala egingo dut.

KRISTOBAL. Gero arte. (*Joaten da.*)

IMANOL. Agur. (*Kristobal joan eta gero.*) ¡Kontuak azterkatu! Ez daukate azterkatu behar handirik. Ongi ikusiak dauzkat.

LAUGARREN AGERRALDIA

Imanol eta Pantxike.

PANTXIKE. (*Kristobal joan eta berehala aterako da.*) ¿Nora joan da nagusia?

IMANOL. ¡Ai, Pantxike! Nagusiak buruhauste asko du!

PANTXIKE. Norbaitek emango dio buruhauste hori.

IMANOL. Bai ba; eta gaiztagile hori zein den jakin nahi luke.

PANTXIKE. Eroriko da bateren bat.

IMANOL. ¿Azeriaren lorratza hartu al duzu?

PANTXIKE. ¡Baliteke!

IMANOL. Hori behar dugu ba. Lorratza hartuz gero jarraitzea baino besterik ez dugu izango.

PANTXIKE. Hori da nik egingo dudana: lorratzari jarraitu bilatu arte.

IMANOL. Bion artean errazago egingo dugu.

PANTXIKE. Ez; nik bakarrik egitekoa da.

IMANOL. (*Benaz.*) ¿Ez al duzu ezagutzen nigan zintzotasunik?

PANTXIKE. ¡Ezagutuko ez dut ba!... ¡jene!...

IMANOL. ¡Ez dakit ba!...

PANTXIKE. Hara: bakarrik egiten badut, sari osoa niretzat izango da.

IMANOL. ¿Ze sari?

PANTXIKE Ba; nire azterketaren bidez norbait onuratzen bada, nik uste dut saritxoren bat izango dudala.

IMANOL. Zuk ez duzu sari beharrik. Inor baino hobeto bizi zara zu.

PANTXIKE. Bai... ez naiz gaizki bizi: baina, badakizu, hobeto nahi. ¡Izan ditut nik etxe honetan egun hauek baino hobeak!

IMANOL. Badakit zer esan nahi duzun.

PANTXIKE. ¿Zer?

IMANOL. (Gaiztoz.) Sabin etxean zenean hobeto aurkitzen zinala.

PANTXIKE. Bai: egia esateko, bai.

IMANOL. Bai ba; Sabin umetatik ezagutu zenuen: bere haurtzain izana zara, eta... haurra beti zure menpean.

PANTXIKE. Ez; ¡menpean ez! (Gogoz.) Nire laguntza, eta zainpean bai.

IMANOL. Orain ere zuk, Kristobalen ogasunak baino Sabinenak gogotsuago zaintzen dituzu.

PANTXIKE. Sabin gogotsu aldeztu arren, ez dut uste Kristobalek zer esanik izango duenik nire mirabetzaz.

IMANOL. Zuk nahi duzuna da, Sabin etxe honetan ikustea.

PANTXIKE. Bai: horixe bai: egia esan duzu: eta ahal badut lortuko dut.

IMANOL. Eta ¿ze gaitz egin dizut nik nire kaltez ibiltzeko?

PANTXIKE. ¿Ni zure kaltez?

IMANOL. Bai: Sabin etxe honetara etortzea, nire kaltez da.

PANTXIKE. ¿Zergatik?

IMANOL. Sabin etorri gero, nire beharrik izango ez delako

PANTXIKE. (Arrazoia du.) Hori, hori: ez da nire arazoa..... Kristobalek ikusiko du!

IMANOL. (Benaz.) ¡Ez duzu ba ikusiko Sabin etxe honetan!

PANTXIKE. Hori..... ¡horixe bai dela nire arazoa!

IMANOL. ¡Ikusiko da!

PANTXIKE. ¡Bai; egia; ikusiko da! (Deia. Pantxikek irekitzen du atea.)

BOSGARREN AGERRALDIA

Lehengoak eta Margari.

MARGARI. ¿Etorri al da Imanol?

PANTXIKE. Bai, hemen duzu.

MARGARI. *Sikiera ere.* ¡Jesus! *Por si acaso* etorri naiz amak doña Kontxitarekin hitz egiten duen bitartean.

PANTXIKE. (Nik esan dudana.) (Joaten da Pantxike.)

MARGARI. (Imanoli.) ¡Berandu etorri aiz!

IMANOL. Gutxi gora-behera, beti bezala, ¿zer nahi den?

MARGARI. *Ziertamente;* bigarren aldiz natorrek. (Atzera begiratuaz.) ¿Joan duk? Tira, bizkor-bizkor emadak behar dudana.

IMANOL. Alperrik habil: diru-kutxa huts-hutsik aurkitzen dun.

MARGARI. Ba, atera Bankutik Kristobalen izenean, eta ahal dugunean bihurtuko dizkiagu.

IMANOL. Ni beldur naun gehiago ateratzen.

MARGARI. ¡Beldur e! ¿niretzat delako?

IMANOL. ¡Isilik hago!

MARGARI. ¡Ez duk izaten beldurrik, hik behar duanean!..... ¡Lelol!.....

IMANOL. ¡Bai! eta..... ¿gero agertzen baditun gure egikerak?

MARGARI. ¡Ze agertu eta ze berriketa!..... Badakik, ni behar-beharrean aurkitzen naizena.... eta sin falta eman behar didak!

IMANOL. Eta ¿nola antolatuko gaitun?

MARGARI. ¿Nola?..... errez-errez. Idatz ezak bost-mila pezetako diru-aterabide bat, eta nik aterako diat *Bankutik*.

IMANOL. ¡Bai, zera! ¡lehengoan bat eta orain beste bat!

MARGARI. ¡Lehengoan hiretzat eta orain niretzat!..... eta..... bat egin duenak bigarrena ere egin lezakek.

IMANOL. Orain ez den aldi ona.

MARGARI. Ba, hik nahi ez baduk nik egingo diat. Jo ezak zigiluarekin paper hau. Bestela, neronek egingo diat. (*Hartzen du ikurratza.*) (*Etortzen da Pantxike.*)

PANTXIKE. (Sartuaz.) Imanol. (*Margari eta Imanol oso ikaraturik.*) Mesedez.....

IMANOL. (*Erdi-haserre.*) ¿Zer nahi duzu?

PANTXIKE. (*Ingurrazti (koaderno) batekin.*) ¡Ez da ezer gizona!: ez haserretu! Galdera bat egitera nentorren: baina, aldi ona ez bada, banoa. (*Bira-emanaz.*)

IMANOL. ¿Zer nahi zenuen?

PANTXIKE. Hara..... hutsa. Nire hartu-emanak ezin azaldurik ari nintzen, eta zuri galdetzera.

IMANOL. Ez dut orain astirik.

PANTXIKE. (Badakit nik ere.)

MARGARI. Gero jarriko dizu garbi-garbi.

PANTXIKE. ¡Bai, bai!..... ez du orain beharrik. Gero arte. (*joaten da.*)

IMANOL. (Amorruez.) ¡A!..... Atso hori baino xauxun eta ia ximelagorik!.....

MARGARI. Ba, berak ez bazekik, zer egingo dik ba!

PANTXIKE. ¡Jakin ez!..... Ez beraren hartu-emanak bakarrik, baita nireak eta hireak, etxeakoak eta herri guztikoak eramateko lain ere bazekin horrek!

MARGARI. Ba..... ez *kasurik* egin: eta egin ezak berehala txeke hori.

IMANOL. ¡Azkenekoz izango dun gero! (*Idazten du.*)

MARGARI. Azkenekoz nahi lehenengoz..... Ekar ezak. (*Artzen du papera.*) Honekin ederki nagok. ¡Bost mila!... ¡Bapo!..... (*Irri-parrez.*) Hik ez duk begirik.

IMANOL. ¿Zer ba?

MARGARI. (*Eskua erakutsiaz.*) ¿Ez duk ikusten sortija eder hau?

IMANOL. ¿Noiz erosi dun?

MARGARI. Oraintxe: hona etorri aurretik,

IMANOL. ¡Ba, ba!..... ¡Horrela aurkituko haiz berriz ere diru gabe!

MARGARI. ¡Buena, bueno!..... ¿Hemen gelditzen al haiz? (*Laster joatea nahi du.*)

IMANOL. Ez; banoan ni ere: ia bazkaltzeko ordua dun eta. (*Biltzen ditu idazti eta paperak eta deitzen dio Pantxikeri.*) ¡Pantxike!

MARGARI. ¿Zertarako duk orain Pantxike?

IMANOL. Banoala esateko.

PANTXIKE. ¿Zer da?

IMANOL. Bagoaz; eta..... esaiozu Kristobal jaunari zeregin askotxo daukatela, eta berandutxoago bihurtuko naizela.

PANTXIKE. Ondo da.

MARGARI. Adios, Pantxike.

PANTXIKE. Zoazte ondo. (*Joaten dira Imanol eta Margari.*)

SEIGARREN AGERRALDIA

Pantxike (bakarrik): gero diru-etxeko otsein bat.

PANTXIKE. Zuek bihurtu orduko zerbait agertuko dela uste dut..... Epaikaritzako behar diren argibide batzuek aldiandit; eta orain ikusiko da zein den errudun eta zein den errugabea. (*Joaten da urrutizkinera, eta bertatik hitz egingo du.*) Urrutitzola.... Bost-hamar.... (*Etxean izango ote da.*) Pantxike... ¿ondo eta zu?..... Ai, Sabin; gauza handiak ikusi ditut.... Margari etorri da Imanolgana, eta isilpean ibili naiz azterkatzen zer ote zebilen, ia harrapatu ditut.... Bai.... Bai, agertu da goizean esan dizudana..... Bai, zoaz eta harrapatuko duzu, edo beste bat bidali.... ¡A! eta atzo esan nizuna egiteko ere gaur da aldirik egokiena.... Bai: zuk bidali ezazu hona..... Bai: kontuan egongo naiz.... Behar duguna da, zure aita ordu hartan etxean harrapatzea.... Nik hala uste dut.... Bai, hori da.... Bizkor ibili. Sabin: ea aitaren nahimena guganatzan dugun.... Bai, bai.... Bai.... Bai: Ezer ohartzen ez badizut, bidali Sabintxo.... Ondo da.... Bai; gero arte.... Bai; agur. (*Uzten du urrutizkina.*) Nire azterketak izango du emaitza. Baietz uste dut.... Epaikari ona izateko behar-beharrena da ernetasuna eta zolitasuna eta horretan ez dit irabaziko Imanolek. (*Etortzen da otseina.*)

OTSEIN. ¿Baimenik bada?

PANTXIKE. Aurrera.
 OTSEIN. (Ateratzen du diru ordainkia.) ¿Kristobal jauna etxean al da?
 PANTXIKE. Ez. ¿Zer nahi duzu?
 OTSEIN. Dirua jaso..... Hemen jartzen du zenbat.
 PANTXIKE. Ba..... niri emanda berdin izango da. Datorrenean emango diot Kristobal jaunari.
 OTSEIN. Ez: Paper hau ez da Kristobali dirua emateko: berak ordaindu behar du.
 PANTXIKE. ¡A! ¿Orduan, zu ez zera etorri dirua emateko, eramateko baizik?
 OTSEIN. Hala da. Eta hiru egun igaro baino lehen ordaindu behar du.
 PANTXIKE. Eta ¿zenbat dela esan duzu?
 OTSEIN. Sei mila laurleko.
 PANTXIKE. ¡Sei mila!..... ¡Ez gutxi ere!..... Ba, berak ikusiko du!
 OTSEIN. Bai. Esango diozu, gero etorriko naizela.
 PANTXIKE. Esango diot; ez du poz handirik hartuko baina.
 OTSEIN. Gero arte. (*Joaten da.*)
 PANTXIKE. Agur..... ¡Hau biziera!..... Alde guztietatik korapiloz lotuta..... ¡Baina ez! ez da izango luzaroko! Nonbaitetik leherraraziko diot!

ZAZPIGARREN AGERRALDIA

Pantxike eta Kristobal.

KRISTOBAL. (*Tamal.*) ¡Hau ez da biziera!
 PANTXIKE. ¿Zer duzu? ¿Gaizki al zaude?
 KRISTOBAL. ¿Gaizki?..... jinoiz baino gaizkiago! (*Eserita eta oldozkor.*)
 PANTXIKE. (Esango ote diot nor izan den?)
 KRISTOBAL. ¡Gaiztagile hori zein den jakin nahi nuke!
 PANTXIKE. ¿Ez duzu inoren susmorik?
 KRISTOBAL. ¡Nire semea!..... ez ez dut uste!
 PANTXIKE. Zure semea bihotz handikoa da.
 KRISTOBAL. ¡Ez dakit nora jo!... ¡Sei mila laurleko!
 PANTXIKE. ¡A! ¿ikusi al duzu hemen izan den otseina?
 KRISTOBAL. ¡Bai, zoritxarrez! Bidean bat egin dugu... (*Apalki.*) Mesede bat eskatu behar dizut, Pantxike.
 PANTXIKE. Nahi duzun guzia.
 KRISTOBAL. Sei mila laurleko behar ditut; eta ez dakit nondik atera.
 PANTXIKE. Ba... nik bilatuko ditut. Nire kontu.
 KRISTOBAL. ¿Non bilatuko dituzu ba?
 PANTXIKE. Nonbaiten bai.
 KRISTOBAL. Ez esan gero bata eta besteari estutasun honetan aurkitzen naizenik: ba, lotsagarri izango litzake niretzat.
 PANTXIKE. Ez jauna, ez: nik ere ez nuke nahi.
 KRISTOBAL. Tira ba; ordainduko dizut zintzotasun ori.
 PANTXIKE. Ez duzu ordaindu beharrik. Nire zukanako maitasunak behartzen nau ahal dudan guztia zure alde egitera.
 KRISTOBAL. Eskerrik asko. Pantxike.
 PANTXIKE. Ez horregatik; Zuk egin behar duzuna da, zaindu ondo inguruan dabilzanak, uste gehiegirik izan gabe.
 KRISTOBAL. ¿Imanolgatik esan nahi duzu?
 PANTXIKE. Imanol... eta... beste; baina ez dugu orain astirik.
 KRISTOBAL. Esan ezazu garbi: niri dagokidana bada.
 PANTXIKE. Ez: bada, hasten banaiz hizketan, ez dut bukatuko gaua arte: eta orain lehenbizi egin behar duguna da, diru-kontu hori zuzendu.
 KRISTOBAL. Tira ba.
 PANTXIKE. Gero arte, jauna. (*Joaten da kalera.*)
 KRISTOBAL. Ondo da. (*Pantxike joan eta gero*) ¡Ni naiz etxe honetako gora-beheren berri gutxien dakiena!...

Batak nire semearen gaizkinahi bat dela; besteak Imanolen erruz dela... ¿Zer egin nezake?... Urteak aurrera, osasuna beherantz, ogasunak galdu beharrean!... ¡Hau egoera tamal eta iluna!... ¡Gaizki behar du nire zahartzaroak!... (Deitzen dute olarako atetik.) Aurrera.

ZORTZIGARREN AGERRALDIA

Kristobal eta Txomin.

- TXOMIN. (*Olarako atetik sartuaz.*) Bilboko olagizon bat etorri da.
KRISTOBAL. Eta zer behar dik?
TXOMIN. Ba, beren burdinolako tramankulu eta tresna batzuk eskaintzera etorri da, erosi nahi badituzu.
KRISTOBAL. ¡Bai!... horretarako nagok!
TXOMIN. ¿Zer esango diot ba?
KRISTOBAL. Ba... ez dugula behar...: eta garaia danean hitz egingo dugula.
TXOMIN. Ondo da. (*Abiatzen da.*)
KRISTOBAL. Itxoin puska batean. Hik urte asko daramazkik etxe honetan, eta inork baino hobeto ezagutuko duk Imanol. ¿Zer deritzok bere bizierari?
TXOMIN. ¡Nik zer esango dizut ba!...
KRISTOBAL. Beldur gabe hitz egin ezak; bada ez duk izango hire kaltez.
TXOMIN. Imanol... bai... ona izango da... baina, nik uste dut... behar baino gehiago hondatzen duela.
KRISTOBAL. ¿Bai?
TXOMIN. ¡Izango ez da ba! Batetik bestera, bere ama eta arrebarekin automobilean ibiliz gero!
KRISTOBAL. ¿Eta hire lagun artean zerbait aditu al duk?
TXOMIN. ¡Ene!... ¡guztiak egiak badira!
KRISTOBAL. ¿Zer ba?
TXOMIN. Ba... nik ez dakit zer esan ere... eta gainera, guziok aurkitzen gara beldurrez bere aurrean. ¿Badakizu zer esan zion atzo Arrietari?
KRISTOBAL. ¿Zer?
TXOMIN. Ba, haserrealdi bat izan zuten: eta Arrietak esan zion: «Kristobal jauna da nire nagusia, ez zu»; eta Imanolek suminez erantzun zion: «Nik erakutsiko diat zein den nagusi eta jabe, datorren astetik aurrera gutxiago ordainduaz, eta isilik, bestela kanpora». Eta orduan, guztiok bat-batean esan genion: «Arrieta joaten bada, gu ere bai»: eta... horretan gara.
KRISTOBAL. ¿Eta zergatik esan ez ba niri? ¿Ez al duk usterik nigan?
TXOMIN. Bai, baina.... beldurrez.... Hara, ¡egia diot gero! Imanolek luzaro jarraitzen badu, gaizki izango gara!.... Gizon zital, setatsu, eta bihozgabea da hori.

BEDERATZIGARREN AGERRALDIA

Lehengoak eta Pantxike.

- PANTXIKE. (*Pozez.*) Jauna; alaitu zaitetz.
KRISTOBAL. ¿Egin al duzu zerbait?
PANTXIKE. Behar den guztia.
KRISTOBAL. (Txomini) Joan zaitetz orain, eta esaiok Bilbotar horri, ez naizela aurkitzen ezeren beharrean.
TXOMIN. Ondo da. (*Joaten da.*)
PANTXIKE. (Oraingoan behartu behar dut nire alde.)
KRISTOBAL. Eta zuk ¿zer egin duzu?
PANTXIKE. Hara: ¡Jaungoikoagandikoa izan da! Apaiz jauna bilatu dut honantz zetorrela, eta esan dit: «Kaixo Pantxike: zuen etxera nindoan: ¿Kristobal etxean al da?» — «Bai

jauna; ¿zerbait nahi al du? Nik egitekoa ba da.... » — «Bai esan dit; eta ondo datorkit zu bilatzea; bada, honantz nentorrela, esan didate berehala joateko Mendiaurrera. Pello gizajoa gaizkiagotu egin dela-eta »

- KRISTOBAL. Bai; atzo esan zuten gaizki aurkitzen zela.
- PANTXIKE. Horra ba. Eta esan dit, hau ekartzeko zuri. (*Idazti azal bat emanaz.*) Sei mila laurleko direla, azalean jartzen duen bezala.
- KRISTOBAL. (*Harrituta.*) Baina ¿zer dela-eta?
- PANTXIKE. ¡A!.... isilpekoa dela esan dit. Berari eman diotela zuri ekartzeko; baina isilpean; eta bere eginbeharra dela, agindu dioten bezala zuri ematea.
- KRISTOBAL. ¿Sinistuko al dizut?
- PANTXIKE. Ez sinistu nahi ez baduzu.....Eta ¿zergatik ez duzu ba sinistu behar?
- KRISTOBAL. ¿Nola nahi duzu ba..... zeinena den jakin gabe sei mila laurleko bidaltzea?
- PANTXIKE. Ba, sinistu ezazu. Izan liteke..... zuri lehenago ostutako dirua ere, eta orain damututa, apaizari ematea, zuri ekartzeko. Hori, maiz gertatzen da. Barrengo arraren zirikadak izaren dira horiek.
- KRISTOBAL. Baliteke..... Dena dela, ondo datorkit, eta eskerrak bidali didanari: eta jarrai dezala lanean barrengo arrak.
- PANTXIKE. Lehenbizi Jaungoikoari eskerrak eman behar dizkiogu.
- KRISTOBAL. Bai, hala da. Gaizki aurkitzen nintzen, eta zer egin ez nekiela: baina, ikusten dut ez direla guztiak bihotz-gabeak. Ezkerrak zuri ere, Pantxike, nireganako maitasun bizia agertu duzulako.
- PANTXIKE. Dakizun bezala, atsegingarri da niretzat zu zorionez ikustea.
- KRISTOBAL. Aspaldi honetan ez dugu ba zoriontasun handirik izan.
- PANTXIKE. Ba, aurrerakoan izateko, gaurtik hartu behar dugu bidea.
- KRISTOBAL. Eta ¿zein bide da hori?
- PANTXIKE. Ba..... etsaitasun eta gorrotoak alde batera utzi; eta elkarrenganako maitasunez bizi. (*Bihotzez.*) ¡Ze gauza ederra! eta ¡ze zorionsua, senide guztiak bata bestearrenganako maitasunez bizitzea!
- KRISTOBAL. Ulertzen dut zergatik diozun hori; baina..... ¡alperrik ariko zara!
- PANTXIKE. ¡Ez al da egia, maitasun eta elkartasun gabe ez dela aurkitzen zoriontasunik?
- KRISTOBAL. Bai: egia izango da: baita, zoriontasun horren beharrean aurkitzen naizela ere: baina..... ¡nik burua makurtu! ¡ez!
- PANTXIKE. Zuk ez duzu burua makurtu beharrik, lehengoak ahaztu baizik: eta..... ¡igaroa igarol!.....
- KRISTOBAL. Baina ¡zenbat bider esan dizut ez aipatzeko niri seme konturik?
- PANTXIKE. (¡Hau lana!.....) Ba..... nire gogo eta nahikundeak, guztion onbidez dira.
- KRISTOBAL. Hala izango dira; eta eskertzen dizut: baina, ez dut nahi ezer horretaz: eta orain..... utz iezadazu bakean. Idazki bat egin behar dut.
- PANTXIKE. Ondo da..... Ni bitartean, bateren bat etortzen bada ere, eratzera noa gela hau, hainbeste sartu-irtenaz nahaspilatu dute ia. (*Gela eratzen hasten da. Gero leihotik begiratzen du eta hitz egiten du beretzat.*) ¡Ez da ageri oraindik!..... ¡Badut igaropen beharra!..... Sabintxo datorrenean ikusiko da!. ¡Zailduko ote da bilobatxoaren aurrean ere!..... Ez dut uste. Sabintxoren liraintasun eta laztantasunak bigunduko dio bihotza..... (*Leihora begiratuaz.*) Badator. (*Abiatzen da aterantz.*)
- KRISTOBAL. Idazki hau bota behar duzu bukatzen dudanean.
- PANTXIKE. Bai, berehala. (*Joaten da kalerako, atetik.*)
- KRISTOBAL. (*Bakarrik: idazkiari begira.*) Nik uste dut, honenbesterekin nahikoa izango dela..... Edo bata edo bestea eroriko da, eta eman beharko du ordainpena..... (*Gogoratuaz.*) ¡Ai! ez nintzen gogoratzen!..... (*Jartzen da berriz idazten.*)

HAMARGARREN AGERRALDIA

Kristobal, Pantxike eta Sabintxo.

(*Sabintxo, lehenbiziko jaunartze egunean ohitzen den janzkiaz. Sartzen da Pantxike Sabintxorekin batean; isilik: Kristobalek jarraitzen du idazten Sabintxoren etorreraz ohartu gabe.*)

PANTXIKE. Tira, Sabintxo, zatoz, ia egin esan dizudan bezala (¡Jaungoikoak ukituko al dio bihotzean!)

SABINTXO. (*Kristobalgana aurreratuaz.*) ¡Aitona! ¡aitona!

KRISTOBAL. (*Harrituta.*) ¿Zer da hau? ¿Nork ekarri du ume hau hona? (*Haserre.*) ¡A! zu (*Pantxiker!*) zu izango zinan..... baina, badakizu ez dudala nahi trebekeririk. ¡Ausarkeri hori zuk! (*Zematuaz.*)

SABINTXO. (*Kristobalen haserre ikusiaz, atzeratuko da.*) Aitona haserre da.

PANTXIKE. Ez, Sabintxo; zurekin ez: jolasean ari da. Tira, zoaz aitonagana. (Kristobal oldozkor.)

SABINTXO. Ez: amatxorengana.

KRISTOBAL. Ume..... ¿Zeinek esan dizu hona etortzeko?

SABINTXO. (*Beldurrez.*) Amatxok.

KRISTOBAL. ¿Zertara?

SABINTXO. Aitonari musu ematera.

PANTXIKE. (*Benaz.*) Eta ondo esan dio. Ordua da, sendi batekoak eta kristauak zaretela gogoratuaz, bakeak egiteko.

KRISTOBAL. (*Bihotz ikaraz.*) ¿Hala uste duzu?

PANTXIKE. Sabintxoren bularrean gaur lehenengoz sartu den Jaun eta Jaungoikoak agintzen dizu.

SABINTXO. Goazen aitaxorengana.

PANTXIKE. Ez: Eman lehenbizi musu bat aitonari. (Sabintxok begiratzen dio Kristobali, baina, ez da ausartzen musu ematera.) Tira, zoaz, aitonak maite zaitu.

KRISTOBAL. Bai..... bai..... zatoz..... zatoz Sabintxo. (*Joaten da Sabintxo geldi-geldi, eta besarkatzen du Kristobalek.*) Zatoz, nire biloba..... (*Malko jario.*) ¡biloba kutuna!..... Zure maitasun beharrean aurkitzen naiz!.... ¿Maite nauzu?

SABINTXO. ¡Asko! (*Muxu emanaz.*)

KRISTOBAL. Eskerrak, jauna, aingerutxo hau bidali didazulako.

PANTXIKE. Aitaren ondoren semea.

KRISTOBAL. ¿Aitaren ondoren?

PANTXIKE. (*Irribarrez.*) Bai..... Ez dizu bidali aita, baina bai bere bitartez bidali dizu Jaunak behar-beharreko emaitza. Sabintxoren lehenengoz Jaunartze-egunean.

KRISTOBAL. ¿Sei mila pezetagatik esan nahi duzu?

PANTXIKE. Bai jauna, bai. Egia esateko garaia da. Sei mila pezeta horiek, Sabinekin zuretzat bidaliak dira, egiaz eta bihotz-bihotzez maitatzen zaituelako.

KRISTOBAL. ¿Maite nau Sabinekin? (*Bere semeagatik.*)

SABINTXO. Nik aitona maite-maite (*Laztanduaz.*)

KRISTOBAL. Bai, Sabintxo: ¡nire biloba kutuna!.... Eta ¿non da zure aita?

SABINTXO. Etxean. ¿Etorriko al da aitonagana?

KRISTOBAL. (Sabintxori begira.) ¡Gaixoa!.....

SABINTXO. ¿Bai, e?

KRISTOBAL. (*Begiak malkoz beterik.*) Bai, laztana bai. Nik zu behar zaitut; eta zu nire ondoan edukitzeko zure aitak ere etorri beharko du!.... (*Erabakiz.*) Tira Pantxike, ¿zuk zer egiten duzu? ¿Non da nire bilobatxoaren aita? ¡Ireki ezazu ate hori!

PANTXIKE. Ez da urruti. Berehala etorriko da. (*Joaten da lasterka.*)

SABINTXO. ¿Aitatxo etorriko da?

KRISTOBAL. ¡Bai, Sabintxo!.... ¡Lehenago etorri behar zuen! ¡Hainbeste urte maitasun gabe!

SABINTXO. (*Puska bat aldendu, eta mahai gainean egongo den tresna polit bat ikusiaz.*) ¡Ze polita!

KRISTOBAL. Zuretzat, Sabintxo.

SABINTXO. ¿Bai?

KRISTOBAL. Bai: nahi duzun guztia.

SABINTXO. ¿Nahi dudun guztia? Ba.... *piano* bat.

KRISTOBAL. ¡Piano!.... ¿Ba al dakizu abesten?

SABINTXO. Bai. Aitaxok erakutsita (1). ¿Nahi duzu «Txantxangorria» abestea?

KRISTOBAL. Tira ba. (*Sabintxok abesten du «Txantxangorria» (Usandizaga): bukatuko du «txorietan argiena txantxangorria» esanaz.*)

KRISTOBAL. ¡Eta umeetan argiena Sabintxo! (*Besarkatuaz.*)

(1) Jarraituko da, Sabintxok abesten badaki: bestela utzi eta igaro hamaikagarren agerraldira

HAMAIKAGARREN AGERRALDIA

Lehengoak, Sabin eta Arantzazu: gero Imanol

- PANTXIKE. (*Sartuko da lehenbizi.*) Tira, aurrera. (*Kristobali.*) Ona hemen zure seme-alabak. (*Kristobal aurreratzen da.*)
- SABIN. (*Sartuaz, Arantzazurekin batean.*) ¿Bada baimenik?
- KRISTOBAL. Bai... Zatozte.... zatozte nire besoetara! (*Besarkatzen ditu.*) ¡Barkatu, seme, barkatu.
- SABIN. Gu gera, zuri barkamena eskatzen dizugunak.
- ARANTZAZU. ¡Barkatu, aita!
- KRISTOBAL. ¡Ze barkatu!... ¡Zorionak!... Aingeru artean bizi beharrean, deabru artean igaro ditut urteak!
- PANTXIKE. ¡Hau poza!..... ¡Sabintxo! ¡zatoz! (*Laztantzzen du.*)
- SABIN. Tori (*Gezurrezko agerkari bat emanaz.*) ea zer deritzozun.
- KRISTOBAL. (*Paperari begiratu, ondoren.*) ¿Nondik atera duk hau?
- SABIN. Pantxikek urrutizkinez emandako oharpenen bitartez harrapatu dut.
- KRISTOBAL. ¡Imanol eta Margari nire hondatzaileak!
- PANTXIKE. Nire iragarpen guztiak bete dira.
- KRISTOBAL. ¡Nire mukerkeriaren emaitza! ¡Ez nuen besterik merezi!
- SABIN. Aurrerakoan ondo izango gera. (*Sartzen da Imanol olarako atetik, eta harrituta gelditzen da Sabin ikusteaz.*)
- KRISTOBAL. (*Imanoli.*) ¿Oraindik ere baduzu hona etortzeko ausarkeria?
- IMANOL. ¿Zergatik diozu?
- KRISTOBAL. ¡Zergatik! Zure nabarkeriak erantzungo dizu.
- IMANOL. Azaldu itzazu hitz horiek.
- KRISTOBAL. Hara hemen zure nabarkeriaren azalpena. (*Gezurrezko agerkaria erakutsiaz.*)
- IMANOL. (*Lotsatuta.*) Ez.... ni ez naiz.
- KRISTOBAL. ¡Agirian dagoena ukatzen duzu! ¡Zoaz hemendik!
- IMANOL. (*Sabingatik.*) Honek asmatuko zuen hori.
- SABIN. Bai: zerbait asmatu behar, zure gizatzarkeriaz nire aitaren hondamendia ikusi baino lehen.
- KRISTOBAL. ¡Esan dizut. irteteko berehala etxe honetatik!
- IMANOL. (*Tamal.*) ¿Ez al duzu ezagutzen nire zintzotasunik?
- KRISTOBAL. Ez. Garbi ezagutu dudana da nire semearen maitasun eta zintzotasuna: eta ez dut besterik behar nire inguruan bera baizik. ¡Zoaz nigandik urruti! (*Imanol irteten da lotsaturik.*)
- SABINTXO. (*Kristobali.*) ¿Gizon gaizto hori etorriko al da berriz?
- KRISTOBAL. Ez, maite. ¡Bukatu da, ahitu da, arrotz zale eta erbestekeria! Sabin eta Arantzazuren laguntzaz, biziko dira zorionez beterik AITONA ETA BILOBA.

AMAIA